

474/2018 EBAZPENA, apirilaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 141/2018 Ebazpenean dauden hutsak zuzentzen dituena. Ebazpen horren bidez, onartu ziren Farmaziako laguntzaile kategorian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak. Aipatutako kategoria Teknikari Laguntzaile Sanitarioen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetakoak izango dira.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan ezartzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Gisa horretako hutsak atzeman dira otsailaren 7ko 141/2018 Ebazpenean (otsailaren 15eko EHAA, 33. zk.), eta, beraz, zuzendu egin behar dira:

III. Eranskinean 2018/896 (172/3)

Honako hau dioenean:

“a) Graduatu aurreko prestakuntza.

Farmaziako Zainketa laguntzaileen teknikari ikasketetan edo baliokideetan ateratako ohorezko matrikula edo bikain bakoitzeko (honako gai hauetan ateratakoak ez dira kontuan hartuko: erlijioa, etika, heziera politikoa, heziketa fisikoa eta hizkuntza)”

Hau esan behar du:

“a) Graduatu aurreko prestakuntza.

Farmaziako teknikari ikasketetan edo baliokideetan ateratako ohorezko matrikula edo bikain bakoitzeko (honako gai hauetan ateratakoak ez dira kontuan hartuko: erlijioa, etika, heziera politikoa, heziketa fisikoa eta hizkuntza)”

Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 24an.



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA

RESOLUCIÓN 474/2018, de 24 de abril, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se corrigen errores en la Resolución 141/2018 de 7 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Auxiliar de Farmacia del Grupo Profesional de Técnicos auxiliares sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El artículo 18.2.c) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido del documento, se subsanaran mediante disposición del mismo rango.

Advertidos errores de dicha índole en la Resolución 141/2018 de 7 de febrero publicada en el BOPV nº33 de 15 de febrero de 2018, se procede a su corrección:

Anexo III, página 6,

Donde dice:

“a) Formación pregrado.

Por cada matrícula de honor o sobresaliente durante los estudios de Técnico en Cuidados Auxiliares de Enfermería o equivalente (no se deben considerar como asignaturas valorables: religión, ética, formación política, educación física e idioma)”

Debe decir:

“a) Formación pregrado.

Por cada matrícula de honor o sobresaliente durante los estudios de Técnico en Farmacia o equivalente (no se deben considerar como asignaturas valorables: religión, ética, formación política, educación física e idioma).”

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de abril de 2018

La Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
MARIA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA